



ESPAINIAR ZEINU HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO OINARRIZKO HEZKUNTZA PROGRAMA

1. SARRERA

Espainiar Estatuan, luzaroan, Zeinu Hizkuntza Espainolaren (aurrerantzean ZHE) erabilera oso eremu zehatzera mugatuta egon zen: elkartegintza osatzen zuten pertsona Gorren arteko komunikaziora, alegia. Hala ere, hirurogeita hamarreko hamarkada amaieratik, honen ikaskuntza eta erabilera beste alor batzuetara barreiatuz joan da. Horregatik, ahaidetasuna, lanbidea edota interes hutsa dela eta, gutxiengo soziokultural eta linguistikoa den Gorren Komunitatearekin harremana daukaten pertsona entzuleek, ZHEko prestakuntza jasotzeko eskaria luzatu dute.

ZHEko Komunikazio ikastaroak pertsona Gorren edozein arlotan, hezkuntzan, gizarte-mailan, lan munduan,... izan zezaketen komunikatzeko beharrianari erantzuna emateko sortu ziren, baita gizarteak pertsona Gorren berezitasunak hurbilagotik ezagut zitzaten ere.

Aipatu ikastarook ZHEan komunikatzeko interesa daukaten pertsona orori zuzenduta daude eta hiru mailatan egituratuta daude (Hasierakoa(A1-A2), Erdikoa(B1) eta Goi-mailakoa(B2)). Horretarako, ikusizko eta zeinu bidezko hizkuntzaz ari garenez, ZHEko ikastarook helburu, antolakuntza eta ezaugarri metodologiko bereziak dituzte.

2. HELBURU OROKORRAK

ZHEko irakaskuntzaren xede nagusia, ikasleek honako gaitasun hauek barneratu eta gara ditzaten laguntzea da:

- a) ZHEk duen komunikazio-balioa aintzat hartu eta hizkuntza hau erabiltzen ikasteko aukera balioetsi, baita hizkuntzarekiko, hitzunenenganako eta hauen kulturarekiko adeitasunezko jarrera baikorra erakutsi ere.
- b) Egoera, gertakari, ideia eta sentimenduen gaineko mezuak ulertu, horretarako ZHEko Adituak irakatsitako eduki orokor eta zehatzak erabiliz.
- c) ZHEko Adituarekin eta ikaskideekin, klaseko ohiko jardueretan zein komunikazioa bultzatzeko propio sortutako egoeretan ZHE erabili.
- d) Elkarrizketetan, ZHEan berezkoak diren ezaugarri gramatikalak ulertu eta jarioetasunez eta era egokian adierazi, hartzailak informazioa jasotzen duela ziurtatuz.
- e) ZHEko berezko adierazpen baliabideak ondo erabili, mezua argi eta dagokion egoerari lotuta ulertzen dela ziurtatuz.
- f) Gorren Komunitatearen kontzeptua zein horren berezko ezaugarriak ezagutu, aztertu, ulertu eta balioetsi.
- g) ZHEan mezuak egokitasunez, era autonomoan eta sormena erabiliz ulertu eta ekoiztu, eta hizkuntzaren erabileran parte hartzen duten prozesuei buruz hausnartu, baita horrek pentsamenduaren antolaketan duen eraginari buruz ere.



h) Oinarrizko errespetu eta diziiplina ohiturak bereganatu eta garatu ZHEko ikasketa prozesua era egokian gauzatzeko ezinbesteko baldintza lez. Baita tolerantzia jarrera erakutsi, pertsona Gorrekiko zein Gorren Komunitatearekiko aurreiritziak gaindituz.

i) ZHE eta kultura, pertsona Gorren eskubide diren heinean, ezagutu eta balioetsi, hizkuntzarekiko errespetu eta interesa adieraziz eta, ondorioz, bere zaintza eta hobekuntza sustatuz.

j) Komunikazio egoeretan Gorren Komunitateak berezkoak dituen ohiko esaerak ezagutu eta ondo erabili.

3. HIRUGARREN MAILAKO HEZKUNTZA-PROGRAMAREN HELBURU OROKORRAK

a) Administrazio publikoek zein erakunde pribatuek eskaintzen dituzten zerbitzuetan, ZH darabilten pertsona gorrekin komunikatzeko gai da, bete beharreko baldintzei eta jarraitu beharreko prozedimenduari buruzko deskribapen edo jarraibide argiak eta zehatzak emanez edo beste pertsona batzuen mezuak adieraziz, zeinu-jarioa, hizkera zehatza eta argia erabiliz.

b) Zh darabilten pertsona gorrek lan egiten duten erakundeetan produktuak erosi zein zerbitzuak erabiltzeko gaitasuna erakusten du, deskribapen eta azalpen argi eta zehatzak erabiliz, erritmo normalean emandako jarraibideak jarraituz... eta noiz behinka, arazoak negoziatzen eta konpontzen, solaskideari batzuetan amore eman behar dela argi utziz, beti ere, egoera igargarriak direnean eta oso zaila ez direnean.

c) ZHko hiztunekin, arlo publiko, akademiko edo profesionalean burututako gor komunitateko ekintzetan, parte hartzen du, egoera hauetan ohikoak diren elkarrizketak izanik, naturaltasun eta zeinu-jario maila onargarrian, informazioa, iritziak eta ikuspuntuak elkar trukatzuz, egoerara malgutasun handiarekin egokituz, baina esfortzu apur batekin, bereziki, beraien hizkera egokitzen ez duten solaskideek parte hartzen badute. Aurreko mailetan ZHEko linguistikari buruz bereganatutako ezagutzak praktikan jarri.

d) ZHko hiztunekin eguneroko bizitzako jazoeretan, komunikatzeko gai da, guztien intereseko gaien buruzko, ideiak, ikuspuntuak eta iritziak elkar trukatzeko, esfortzu apur batekin. Solasaldi luzeetan, arrazoiak, azalpenak eta iruzkin egokiak erabiliz, bere inguruan esaten denaren zati handiena jasoz, baina pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duten elkarrizketa eta eztabaidetan arazoren bat izaten du.

e) Bere espezialitatearekin zerikusia duen gaiak jorratzen diren, batzarretan edo taldeko lanetan, Zh darabilten pertsona gorrekin parte hartzen du; argumentuak eta esaten dena jasoz, lanaren aurrerakuntzan parte hartuz, ideiak eta ikuspuntuak elkar trukatzuz, aukera ezberdinak ebaluatuz eta ikuspegi, abantailak, arazoak... baloratuz, solaskideei ahalegin handirik suposatuko ez dien zeinu-jario eta naturaltasunarekin.

f) ZH darabilten pertsona gorrei, gertaera kulturalak (adierazpen artistikoak, sinboloak...) ulertzeko eta gozatzeko beharrezko informazio zehatza edo abstraktua adierazten daki, deskribapen argi eta zehatzen bitartez, ideia eta adibide nabarmenak adieraziz, solaskideei ahalegin handirik suposatuko ez dien zeinu-jarioarekin.

g) Bere espezialitatearekin zerikusia duten gai interesgarriak irakasteko, informatzeko edo hedatzeko helburuarekin egiten diren Gor Komunitateko, ekitaldi profesional zein akademikoetan (hitzaldiak, aurkezpenak, klaseak, kongresuak...) parte hartzeko gai da; hitzaldi, emanaldi, adierazpenen... ideia nagusiak identifikatuz, linguistikan zailak direnak ere, beti ere ezastruktura ona, eritmo normala eta hizkuntza estandarra erabiltzen badute.

h) Zeinu hizkuntzan bera baino trebetasun gutxiago duten pertsonen, luzera zehatz bat duten testuen (albiste zatiak, elkarrizketak, dokumentalak...) eduki orokorra, zeinu hizkuntzan helarazteko gaitasuna erakusten du. Beti ere, iritziak, arrazoiak edo analisiak helarazten dutenak badira. Linguistika ikuspuntutik zailak direnak ere, baina gai ezagunak edo norbere espezialitatearekin zerikusia izan behar dute eta hizkuntza estandarrean hitz egiten behar dute.

i) Gor komunitateko ekintzetan (eztabaidak, elkarrizketak...) parte hartzen du, ZHko hitzunen arrazoinamenduak, baita zailak direnean, ikuspuntuak, jarrerak, tonua eta intentzioa identifikatuz. Beti ere, ezagunak diren gaiak edo norbere espezialitatearekin zerikusia dutenean.

j) Zeinu hizkuntzan egindako antzezlan, kontakizun publikoen... korapiloa eta gertaeren sekuentzia orokorra zein den azaltzeko gai da, baldin eta testuak eritmo normalean, hizkera maila arruntean signatzen badira eta gor komunitateak soilik erabiltzen duten kontzeptu zailei aipamenik ez badute egiten.

4. HIRUGARREN MAILAKO HELBURU ZEHATZAK

> ZHKO MEZUEN ULERMENA

a) Bizitza pertsonalari, gizarte bizitzari, akademikoari edo profesionalari buruzko gai ohiko zein ez ohikoak jorratzen duten, aurrez aurreko elkarrizketa signatuen puntu nagusiak, esfortzuarekin antzeman. Baina, solaskideek diskurtsoa ez badute moldatzen hizlari desberdinak duten eztabaida batzuk antzemateko arazoren bat izan dezake.

b) Ezastruktura zaila duten, gai zehatzak edo abstraktuak jarduten duten, diskurtsoen ideia nagusiak antzeman, baldin eta gaia ezaguna eta diskurtso signatuaren markadoreak era argian errazten badira.

c) Abiadura desberdinetan dauden ZHko bideoetatik, diskurtso signatuen era bereizi desberdinak ezagutu eta hizlariaren tonua eta umorea zein den antzemateko gaitasuna du.

d) Gaur egungo gaiei, grabatua edo telebistatik edo Internet bidez emandako albiste, elkarrizketa, eztabaida... signatuen informazio orokorra eta zehatza jasotzea, betiere, diskurtsoaren abiadura eta zailtasuna alde batera utzita, era argian eta hizkera maila arrunta erabiliz signatzen bada.

> ZEINU HIZKUNTZAKO ADIERAZPENA

e) Bere espezialitatearekin zerikusia duten gaiei buruz zein asmatutako edo errealak diren esperientziei buruz diskurtso argi eta zehatzak signatu, informazioa eta argudioak laburbilduz eta ebaluatuz.



f) Aukeratutako idatzi mota kontuan hartuz, idatzi argiak eta ondo estrukturatuak signatzea, adibidez, artikuluen eta pelikulen aipamena, iritzi zehatz batekin bat egiten duela edo horren aurka dagoela argi uzten duten arrazoiak edo adibideak sustatuz.

g) Beraren interesekin zerikusia duten gaiak jorratzen dituzten diskurtso argi eta zehatzak signatu, gai bati buruz egon daitezkeen ikuspuntu desberdinak azalduz, aukera desberdinen abantaila eta desabantailak adieraziz.

h) Aurretiaz prestatutako aurkezpen signatuak egin, non esperientzi eta gertakari zehatzen garrantzia azpimarratzen den.

> ZH DARABILTEN HIZTUNEKIKO ELKARREKINTZA

i) Gai desberdinei buruzko elkarrizketa signatu formaletan, jarioagaz eta naturaltasunez parte hartu; solaskideek esfortzurik egin gabe eta bere ideiak defendatuz eta formalitate maila egoerara era egokian moldatuz.

j) Ohiko gai zein gai orokorreko buruzko elkarrizketa luze informaletan parte hartu; solaskideei enbarazu edo dibertitu gabe, emozio apur bat adieraziz eta gertakari eta esperientzia pertsonalen garrantzia sustatuz.

k) Solaskide signanteen ideiak eta bereak desberdinu; iritziak zehaztasunez adieraziz, ikuspegiak, erlatiboki zailak diren argumentuak erabiliz defendatuz, azalpenak, argudioak eta iruzkin egokiak emanez, betiere, parte hartzaileak gutxi badira eta hizkera maila arruntean jarduten badute.

l) Testuinguru profesionalean, bere espezialitatearekin zerikusia duten gaiak lantzen diren, batzar eta eztabaidetan, parte hartzea; solaskide signanteen aldetik, jokaera bereziren bat eskatu gabe.

m) Ikuspegi desberdinak alderatzea beharrezkoa denean, solaskide signanteen lankidetzarekin, zeregin eta ekintzak burutu; beste batzuei parte hartzera gonbidatuz, lanaren garapenari lagunduz.

>ZUZENTASUN ETA DOITASUNA SISTEMAREN OSAGAIEN ERABILERAN

n) Zeinu hizkuntza maila altuan kontrolatzen dela frogatu, akats gehienak zuzenduz, ulertzintasuna bihurtzen duten akats gutxirekin.

o) Era desberdinetan gai orokor eta bere espezialitatearekin zerikusia duten gaiei buruz hitz egiten uzten dion hiztegi zabala erabili; zeinu hizkuntzan gutxi erabiltzen diren esapideak sartuz, nahiz eta oraindik, itzulginguruak behar izan eta zalantzak izan.

>EGOKITZAPEN SOZIOLOGIA

p) Bat-bateko gizarte egoeretan, era egokian eta malgutasunez jokatu; gaizki ulertuak saihestuz eta bikoiztasun egoerak gaintuz, duen baliabide desberdinei esker, solaskideak esan nahi duena interpretatzen eta argitzen eta bere erregistroa egoerara moldatzen uzten dio, nahiz eta mugaketak izan.



> EGOKITZAPEN PRAGMALINGUISTIKOA

q) Eztabaida baten hitza era egokian hartu; elkarrizketa era naturalean hasteko, mantentzeko eta amaitzeko baliabide linguistiko desberdinak erabiliz, txandaka, igorle eta hartzaile rolak bereak eginez, beharrezkoa bada, denbora irabazteko eta esan nahi duena buruz formulatzen duen bitartean bere txanda mantentzeko argibideak erabiliz.

r) Elkarrizketa signatu baten noranzkoan, eran eta erregistroan eman ahal diren aldaketei egokitzeko asmoz, zeinu hizkuntzan komunikatzeko estrategiak erabili; esan nahi duena beste era batera esan ahal duelarik.

s) Naturaltasunez, gertaerak, ideiak azaldu edo jazoerak laburbildu; adierazteko jarioa eta erraztasuna erakutsiz, parte hartze luze eta zailtan baita.

t) Edukia eta adierazi nahi duena, egoerari eta solaskideari egokitu, egoerarekin bat datorren formaltasun maila hartuz.

u) Deskribapen eta kontakizun argiak burutu; alderdi nagusiak garatuz eta bere ikuspuntuak zehaztasun eta adibide egokiekin indartuz, ideien artean dagoen harremana era argian adierazteko lokailu eta kohesio mekanismo desberdinak era egokian erabiliz.

v) Abiadura erregularrean diskurtso signatuak egin; geldiune luze gutxi eginez, baina batzuetan, egitura eta adierazpen batzuk bilatzeko zalantzak izan ahal ditu, duen jario eta naturaltasunari esker, berezko hiztunekin inolako tentsiorik gabe elkarrizketa bat izan ahal du.

5. JARRAIBIDE DIDAKTIKOAK (METODOLOGIA)

ZHEren ikasketa prozesuaren ardatza **komunikazio-metodoa** da. Ildo horretan, ikasleek testuinguru bakoitzari dagozkion eduki aipagarriak igorri eta jasoz komunikatzen ikas dezakete. Horretaz gain, egunerokotasuneko egoera zehaztetzat beharrezkoa den komunikazio gaitasuna barneratu dezakete.

Komunikazio metodoaren arabera, ZHEko Adituaren rola ez da klaseko ardatza edo pertsonaia garrantzitsuena izatearena, ikasleen gidaritzat aritzea baino. Hortaz, ikasleek klasean zehar rol parte hartzaileagoa hartzen dute. Era berean, ikastaroetan gramatika erraz ulertzeko moduan azaltzen da, ikaslearengan jakin-mina pizteko asmoz.

Hau guztia lortzera bidean, klasean jarduera anitz proposatzen dira: antzerkitxoak, elkarrizketak, rol-jokoak, binakako lanak, lanak talde txikitan, etab., biziaren errealitate hartutako testuinguruak proposatuz eta ohiko eduki funtzionalak adieraz ditzaten eskatuz, hala nola: informazioa eman ala eskatu, tentua eta sentimenduak azalerratu, ideiak bota, konbentzitu,...



Euskal Gorra

6. HIRUGARREN MAILAKO EBALUAKETA IRIZPIDEAK

- a) Aukeratutako generoa kontuan izanda (artikuluak, pelikulak, albisteak...), testu argi eta ondo estrukturatuak signatu.
- b) Gramatika kontrol altua erakutsi.
- c) Esandakoa, ulertezintasuna bihurtzen duten akats gutxi egin, akats gehienak zuzenduz.
- d) Elkarrizketa signatu baten noranzkoan, eran eta erregistroan eman ahal diren aldaketei egokitzeko asmoz, zeinu hizkuntzan komunikatzeko estrategiak erabili; esan nahi dena beste era batera esanez.
- e) Edukia eta adierazi nahi dena, egoerari eta solaskideari egokitzen jakin, egoerarekin bat datorren formaltasun maila hartuz.
- f) Egoera eta gogo-aldarte ezberdinak doitasun eta argitasunez adierazi, beronen gorputza erabiliz.
- g) Espazioa adierazpen baliabide modura erabiltzen jakin, ZHEri eduki gramatikala emateko.
- h) Iritziak zehaztasunez adierazi, ikuspegiak, erlatiboki zailak diren argumentuak erabiliz defendatuz.
- i) Era desberdinetan gai orokor eta norbere espezialitatekin zerikusia duten gaiei buruz hitz egiten uzten duen hiztegi zabala erabili; zeinu hizkuntzan gutxi erabiltzen diren esapideak sartuz, nahiz eta oraindik, itzulginguruak behar izan eta zalantzak izan.
- j) Bat-bateko gizarte egoeretan, era egokian eta malgutasunez jokatzeko jakin; gaizki ulertuak saihestuz, duen baliabide desberdinei esker, solaskideak esan nahi dena interpretatzen eta argitzen eta norbere erregistroa egoerara moldatzen utzi, nahiz eta mugaketak izan.
- k) Eztabaida baten hitza era egokian hartzen jakin; elkarrizketa era naturalean hasteko, mantentzeko eta amaitzeko baliabide linguistiko desberdinak erabiliz, txandaka, igorle eta hartzaile rola bereak eginez.
- l) Beharrezkoa bada, denbora irabazteko eta esan nahi dena, buruz formulatzen den bitartean, txanda mantentzeko argibideak erabiltzen jakin.
- m) Sinonimoak, antonimoak eta zeinu eufemistikoak era egokian erabili.
- n) Gorren Komunitateari buruz barneratutako ezagutzak errespetatu eta balioetsi testuinguru soziolinguistiko horretara egokitze aldera.
- o) Bizitza pertsonalari, gizarte bizitzari, akademikoari edo profesionalari buruzko gai ohiko zein ez ohikoak jorratzen duten, aurrez aurreko elkarrizketa signatuen puntu nagusiak, esfortzuekin antzeman.
- p) Norbere interesekin bat datozen hainbat gaiei buruz diskurtso argiak eta zehatzak signatzen jakin.
- q) Gai desberdinei buruzko elkarrizketa formaletan, jarioagaz eta naturaltasunez parte hartu; bere ideiak defendatuz eta formalitate maila egoerara era egokian moldatuz.
- r) Ohiko gai zein gai orokorreko buruzko elkarrizketa luze informaletan parte hartu; emozio apur bat adieraziz eta gertakari eta esperientzia pertsonalen garrantzia sustatuz.



Euskal Gorra

- s) Aurretiaz prestatutako aurkezpen signatuak egiten jakin, non esperientzia eta gertakari zehatzen garrantzia azpimarratzen diren.
- t) Naturaltasunez, ideiak azaltzen edo jazoerak laburbiltzen jakin; adierazteko jarioa eta erraztasuna erakutsiz, parte hartze luze eta zailetan baita.
- u) Abiadura erregularrean diskurtso signatuak egiten jakin; geldiune luze gutxi eginez, baina batzuetan, egitura eta adierazpen batzuk bilatzeko zalantzak izan ahal dira.
- v) ZHE adierazpen maila on bat lortzeko, adierazpen gaitasunak eta beharrezko trebetasunak erabili.
- w) Estatuko pertsona gor helduen elkarte-sarea osatzen duten erakundeetako bat izendatzen jakin.
- x) Pertsona gor helduen zein ume gorren familien erakunde autonomikoez osatzen duten estatuko elkarte-sareko federazio edo konfederazio nagusiak ezagutu.
- y) Pertsona gor helduen eta ume gorren familien Europako elkarte-sareko erakunde homologoak izendatzen jakin.
- z) Zeinu Hizkuntzako edukiak ematen dituen webguneetako bat behintzat ezagutu eta erabili.

7. IKASLEEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK:

>IKASLEEN ESKUBIDEAK:

a) Irakaskuntza eta parte-hartzeari buruz:

- a.1. Hezkuntza-programan ezarritako eta irakasle-taldeak adostutako egitarauaren arabeko hezkuntza jaso.
- a.2. Federazioek edota Elkarrekin antolatutako hezkuntza-jarduera eta ekimen osagarrietan parte hartu.
- a.3. Federazioa edota Elkarrekinetako azpiegitura eta zerbitzuak erabili, beti ere horietako bakoitzak dituen helburuen arabera.

b) Ebaluaketari dagokionez:

- b.1. Ikasturtean zehar maila bakoitzerako egiten diren ebaluaketa-proba guztietan parte hartu.
- b.2. Ikasleek, beraien garapena objektibotasun osoz ebaluatua izateko eskubidea daukate.
- b.3. ZHEren Adituek, barneratutako edukiak ebaluatzeko kontutan hartuko diren irizpide orokorrak alde aurretik helarazi beharko dituzte.
- b.4. ZHEren Adituek ikasleekin komunikazio oparoa izango dute, ikasleek ikaskuntza-prozesuari ateratako atarramenduari eta egindako garapenari dagokionez.
- b.5. Ikasleek, ikasturte amaieran hartutako erabakien eta jarritako kalifikazioaren kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute. Erreklamazio hori bi arrazoitan oinarritu ahal izango da: batetik, ikasleari jarritako proba, maila ezberdinetan ezarritako helburu edo edukiei egokituta ez

egotean ala, bestetik, ezarritako irizpideak txarto erabiltzean. Horretarako, idatzizko erreklamazioa egin beharko dute, federazioak daukan eredia erabiliz.

c) Aukera berdintasunari dagokionez:

c.1. Ikasle guztiek irakaskuntza maila ezberdinetan parte hartzeko aukera berdina izateko eskubidea dute.

c.2. Aukera berdintasuna honako irizpideei jarraituz sustatuko da:

>Jaiotze, arraza, sexu, erlijio ala iritzi arrazoiak direla medio edota banakako zein gizarteko bestelako baldintza edo egoerarengatiko bazterkeria eza.

>Benetako aukera berdintasun eraginkorra ziurtatuko duten baliabide gehigarrien ezarpena.

c.3. Federazioak, ikasleen bazterkeria saihestuko duten ekimenak gauzatuko ditu. Ildo horretan, arreta berezia jarriko du bizikidetzarako arauak errespetatu eta ikasleen integrazio osoa ziurtatzeko ekintza positiboetarako egitasmoak ezar daitezten.

>IKASLEEN BETEBEHARRAK:

a) Bertaratzea eta ziurtagiriei dagokienez:

a.1. Izena eman duten ikastaroari dagozkion eskoletan zein proposatutako gainontzeko hezkuntza-jardueretan parte hartu (Gaitasun ziurtagiria jasotzeko, gutxienez, ikasturteko orduen %80an parte hartu eta azken proba gainditu beharko dute. Osterantzean, Bertaratze ziurtagiria jasoko dute). Ezinbestekoa da eskoletara maiz kale ez egitea, gainontzeko ikaskideen zein ikaslearen ikasketa-prozesua ez oztopatzeko. Era berean, egindako hutsegiteak egiaztatari bidez arrazoitu beharko dira.

a.2. Ikasleak eskoletara orduan heltzea gomendatzen dugu; hortaz, ikaslea eskolara 15 minutu baino gehiagoko atzerapenez heltzekotan, ezin izango da ikasgelan sartu eta atsedendia amaitu arte itxaron beharko du ikasgelan sartu ahal izateko.

a.3. Ikasleak ikastaroan baja eman nahi izatekotan, ikastaroaren ZHEko Koordinatzaileari idatziz jakinarazi beharko lioke.

a.4. Ikaskideen arreta ez oztopatze aldera, ikasleak ezin izango dira ikasgelatik irten harik eta eskola amaitzen ez den arte. Arrazoitutako egoeretan salbuespenak egin ahal izango dira, baldin eta ZHEren Adituak bere onespina ematen badu.

a.5. Jarduerak gauzatzeko onartutako ordutegiak bete eta errespetatu.

a.6. Ikastaroa antolatzen duen Erakundeak ezarritako ordainketak egin ez duten ikasleei zuzenean baja emango zaie.

b) Ikasgelan erakutsi beharreko jarrerrei dagokienez:

b.1. Debekatuta dago eskoletan zehar ahotsa erabiltzea.

b.2. Idazteari dagokionez, eduki teorikoak asko direnean baino ez da baimenik emango. Idazteko askatasuna emateak ZHEren ikasketa-prozesuari kalte egingo lioke eta hizkuntza honek ezinbestean eskatzen duen begi-arreta galduko litzateke.



ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

III. Mailako Programazioa



8. HEZKUNTZA EDUKIAK

HEZKUNTZA EDUKIAK –GORENGO MAILA (B2)				
UNITATEA	EDUKI PRAGMATIKOAK	EDUKI GRAMATIKALAK	EDUKI LEXIKOAK	EDUKI SOZIOKULTURALAK
1. Unitatea Pertsona gor bat hurbiletik ezagutzen dugu	<ul style="list-style-type: none"> > Informazioa eman eta eskatu. > Gustuak, desioak eta sentimenduak adierazi . > Jendareenganako harremana. > Diskurtsoaren estrukturaketa, eraikuntza eta interpretazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> >Izena: -Izen motak: Izen arruntak. >Aditza: -Sailkapen sintaktikoa: aditz laguntzailea. 	<ul style="list-style-type: none"> >Kontzeptu orokorrak: Espazialak, Denborazkoak, Pertsonen arteko harremanak. > Gaiak: Hezkuntza. Aisialdia. Informazioa eta komunikabideak. Zerbitzuak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Familia Unitatea. -Gorrieriaren onarpena
2. Unitatea Jatea gustuko dugu	<ul style="list-style-type: none"> > Informazioa eman eta eskatu. > Gustuak, desioak eta sentimenduak adierazi. > Diskurtsoaren estrukturaketa, eraikuntza eta interpretazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> >Izenondoa: -Izenondo motak: argitzeoak, ezaugarri mailaren adierazgarria. Sintagmaren posizioa. 	<ul style="list-style-type: none"> >Kontzeptu orokorrak: Existenzialak. Kuantitatiboak. Espazialak. Denborazkoak. Denboran kokapena. Ebaluaziozkoak. >Gaiak: Pertsona. Norberaren nortasuna. Erosketak, dendak eta saltokiak. Zientzia eta teknologia. Osasuna eta higiena. 	<ul style="list-style-type: none"> >Janaria eta edariak. Mahaian izan beharreko jokaerak.



Programación Nivel III

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

III. Mailako Programazioa



<p>3. Unitatea Txutxu-mutxuak gustuko ditugu.</p>	<p>>Informazioa eman eta eskatu.</p> <p>>Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi.</p> <p>>Gustuak, gogoak eta sentimenduak adierazi.</p> <p>>Diskurtsoaren egituraketa, eraikuntza eta interpretazioa.</p>	<p>>Izenondoa.</p> <p>- <i>Izenondo motak: gehigarriak edo murriztatzaileak. Predikazio-izenondoak.</i></p> <p>> Zenbatzaileak.</p> <p>-<i>Berezko zenbatzaileak: gradatiboak.</i></p> <p>>Izenordaina.</p> <p>-<i>Galderazko izenordainak.</i></p>	<p>>Kontzeptu orokorrak: <i>Kualitatiboak. Kuantitatibo. Ebaluaziozkoak. Burukoak. Hitzezko adierazpena. Denborazkoak.</i></p> <p>> Gaiak: <i>Pertsona. Harreman pertsonalak. Informazioa eta komunikabideak. Gobernua, politika eta gizartea. Geografia eta natura. Harreman pertsonalak.</i></p>	<p>>Aisialdia:</p> <p>- <i>Udalekuak</i></p>
<p>4. Unitatea Garai zailak dira</p>	<p>>Gustuak, gogoak eta sentimenduak adierazi.</p> <p>>Solaskidearengan eragin.</p>	<p>>Erakusleak.</p> <p>- <i>Erakusleen kokapena: ezarritako eta ezarri gabeko ordena. Erreferentziadun eta gabeko erakusleak.</i></p> <p>> Izen-sintagma.</p> <p>-<i>Ezarri gabeko ordena.</i></p>	<p>>Kontzeptu orokorrak: <i>Existenzialak. Kualitatiboak. Ebaluaziozkoak.</i></p> <p>>Gaiak: <i>Pertsona. Norberaren nortasuna. Hezkuntza. Etxebizitza. Zerbitzuak. Erosketak, dendak eta saltokiak. Ekonomia eta industria.</i></p>	<p>> Gizarte Zerbitzuak.</p> <p>- <i>Ezgaitasun ziurtagiria</i></p>
<p>5. Unitatea Etorkizunera bidaiatzen</p>	<p>> Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi.</p> <p>>Gustuak, desioak eta sentimenduak</p>	<p>>Aditza.</p> <p>- <i>Aditz sintagmaren ardatza:</i></p>	<p>>Kontzeptu orokorrak: <i>Kuantitatiboak. Espazialak.</i></p>	<p>>Ohitura eta gizarte aldaketa.</p> <p>- <i>Berariazko eskolak.</i></p>



Programación Nivel III

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

III. Mailako Programazioa



Euskal Gorrak

dugu	adierazi.	<i>aditzen ordena.</i> >Esaldi arrunta. <i>-Ordena: ohiko ordenan, aldaketak.</i>	<i>Denborazkoak. Kualitatibok.</i> >Gaiak: <i>Zientzia eta teknologia. Ekonomia eta industria. Garraio sistema.</i>	
6. Unitatea Historia beti dago hor.	>Informazioa eman eta eskatu. >Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi.	> Edutezkoak. <i>- Sintaxi kokapena.</i> >Izenordaina. <i>-Izenordain erlatiboak.</i> >Esaldi arrunta. <i>-Esaldi arrunt motak: predikatuaren izaeraren arabera.</i>	>Kontzeptu orokorrak: <i>Kuantitatiboak. Espazialak. Denborazkoak. Kualitatiboak.</i> >Gaiak: <i>Zerbitzuak. Ekonomia eta industria. Nekazaritza eta abeltzaintzako sektorea. Gobernu, politika eta gizartea.</i>	>Pertsona Gorren ordezkapena eta protagonismoa. <i>-Pertsona Gorren Munduko kongresua.</i>
7. Unitatea Ospatzen gabiltza	>Solaskidearengan eragin. > Jendearenganako harremana. >Diskurtsoaren, egituraketa, erainkuntza eta interpretazioa.	>Izena. <i>-Izen kopurua: zeharkako izenezko zenbatzea, , deskribapen anitza.</i> >Koordinazio bidez elkartutako esaldiak. <i>-Hautakariak.</i>	>Kontzeptu orokorrak: <i>Existenzialak. Espazialak. Denborazkoak. Kualitatiboak</i> >Gaiak: <i>Pertsonen arteko harremanak. Elikadura. Hezkuntza. Informazioa eta komunikabideak. Informazioa eta komunikabideak.</i>	>Talde nortasuna. <i>-Gor nortasuna.</i>
8. Unitatea	>Deskribatu.	>Izena.	>Kontzeptu orokorrak:	



Euskal Gorrak

Programación Nivel III

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

III. Mailako Programazioa



Munduko gauza harrigarriak	<ul style="list-style-type: none"> >Azaldu. > Gustu, desio eta sentimenduak adierazi. 	<ul style="list-style-type: none"> -Izen motak: <i>izen arruntak.</i> >Zenbatzaileak. - <i>Berezko zenbatzaileak.</i> >Aditzondoa. - <i>Aditzondoak: leku eskumeneko zirkunstantzialak.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Zenbatzaileak. <i>Kualitatiboak. Ebaluaziozkoak.</i> >Gaiak: <i>Aisia. Bidaiak, Ostatua eta garraioak. Gobernu, politika eta gizartea. Arte ekintzak. Geografia eta natura.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> >Pertsona gorrentzako erakundeak. - <i>WDF eta EUD.</i>
Unidad 9 Estamos rodeados de tecnología	<ul style="list-style-type: none"> >Informazioa eman eta eskatu. >Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi. >Solaskidearengan eragin. -<i>Baimena eskatu, utzi eta ukatu. Debeku bat debekatu edo ukatu. Mehatxatu.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> >Aditzondoa. -<i>Aditzondoak: denborazko eskumenezko zirkunstantzialak.</i> > Aditz sintagma. -<i>Osagarriak.</i> >Esaldi arrunta. - <i>Esaldi arrunt motak: igorlearen jarreraren arabera.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> >Kontzeptu orokorrak: <i>Existenzialak. Kuantitatibo. Espazialak. Denborazkoak. Kualitatiboak. Ebaluaziozkoak.</i> >Gaiak: <i>Erosketak, dendak eta saltokiak. Ekonomia eta industria. Zientzia eta teknologia.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> >Talde nortasuna eta bizi modua. - <i>La bideokonferentzia.</i>
10.Unitatea Bilatzen...	<ul style="list-style-type: none"> >Informazioa eman eta eskatu. >Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi. > Jendearenganako harremana. >Diskursoaren, egituraketa, eraikuntza eta interpretazioa.. 	<ul style="list-style-type: none"> >Aditzondoa. - Aditz perifrasieta aditzondoaren erabilera. <i>Presentzia edo gabezia aditzondo erreferenteak.</i> >Aditz sintagma. -<i>Aditz sintagmaren ardatza.</i> > Koordinazio bidez elkartutako esaldiak. -<i>Hautakariak.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> > Kontzeptu orokorrak: <i>Existenzialak. Kualitatiboak.</i> >Gaiak: <i>Pertsona. Harreman pertsonalak. Hezkuntza. Lana. Ekonomia eta industria. Gobernu, politika eta gizartea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> >Gizarte zerbitzuak eta laguntza egitasmoak. -<i>Pertsona gorrentzako enplegu zerbitzuak.</i>



Programación Nivel III

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

III. Mailako Programazioa

11. Unitatea Gurea, antzerki hutsa da	>Gustu, desio eta sentimenduak adierazi. >Diskurtsoaren, egituraketa, eraikuntza edo interpretazioa.	>Menderakuntzarekin osatutako esaldiak. - <i>Esaldi menperatuak: barne arrazoizko menderakuntza.</i>	>Kontzeptu orokorrak: <i>Kuantitatiboak. Espazialak. Denborazkoak. Kualitatiboak.</i> >Gaiak: <i>Pertsona. Osasuna eta higieena. Arte ekintzak.</i>	>Produktu eta kreazio kulturalak. - <i>Pertsona gorren antzerki elkarteak.</i>
12. Unitatea Nagusitzen ari gara	>Diskurtso adierazgarrien markadoreak. >Iritzi, jarrera eta ezagutzak adierazi. >Gustu, desio eta sentimenduak adierazi.	>Zenbatzaileak. - <i>Zenbatzaileen posizioa.</i> >Aditz sintagma. - <i>Aditz sintagmaren ardatza: aditz laguntzaileak.</i> >Koordinazio bidez osatutako esaldiak. - <i>Koordinazio kasu berezia (ondoriozko aditzondo menpeko esaldiak)</i> > Menderakuntzarekin osatutako esaldiak. - <i>Arrazoizko barne menderakuntza: konparaketa.</i>	>Kontzeptu orokorrak: <i>Existenzialak. Espazialak. Kualitatiboak. Ebaluaziozkoak.</i> >Gaiak: <i>Pertsona. Etxebizitza. Zerbitzuak. Erosketak, dendak eta saltokiak. Osasuna eta higieena.</i>	>Gizarte zerbitzuak eta laguntza egitasmoak. - <i>CNSEko Pertsona Gor nagusien Kontseilua.</i>
13. Unitatea Ikasten gaude beti	> Gustu, desio eta sentimenduak adierazi. >Solaskidearengan eragin. > Jendearenganako harremana.	>Izenordaina. - <i>"Bere" izenordaina balore inpersonalarekin</i> >Izen sintagma. - <i>Enfasiak ezarritako ordena.</i> > Koordinazio bidez osatutako	>Kontzeptu orokorrak: <i>Kuantitatiboak. Denborazkoak. Kualitatiboak. Ebaluaziozkoak. Burukoak.</i> >Gaiak: <i>Pertsona. Hezkuntza.</i>	>Osasuna eta higieena. - <i>Logopedia.</i>

Programación Nivel III

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

III. Mailako Programazioa



		<p>esaldiak.</p> <p>-<i>Esplikatiboak.</i></p> <p>> Menderakuntzarekin osatutako esaldiak.</p> <p>-<i>Baldintzazko aditzondo menderakuntza esaldiak.</i></p>	<p><i>Irakasleagoa eta ikasleagoa. Zerbitzuak. Ekonomia eta industria. Zientzia eta teknologia.</i></p>	
<p>14. Unitatea</p> <p>Eta irabazlea...</p>	>Kontatu.	<p>>Izen sintagma.</p> <p>-Koordinazio eta menpekotasunaren bitartez adierazi.</p>	<p>>Kontzeptu orokorrak: <i>Ebaluaziozkoak. Burukoak.</i></p> <p>>Gaiak: <i>Pertsona. Aisia.</i></p>	<p>>Saria eta jazoerak.</p> <p>-<i>Juan Luis Marroquín.</i></p>
<p>15. Unitatea</p> <p>Lortu dezakegu!</p>	>Adierazi.	<p>>Aditzondoa.</p> <p>- <i>Moduzko aditzondoak.</i></p>	<p>>Kontzeptu orokorrak: <i>Existenzialak. Ebaluaziozkoak. Burukoak.</i></p>	<p>>Hizkuntza politika.</p> <p>-<i>Hizkuntza Normalizazio Zentroa CNLSE.</i></p>



Programación Nivel III

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**